



Kalitatea, eraginkortasuna, profesionaltasuna, iraunkortasuna, grina, ekonomia, ekintzailletza, kooperazioa, sare-lana, jakin-mina, bizkortasuna, konpromisoa, konfiantza, lehiakortasuna, kalitatea, zerbitzua, bermea, fidagarritasuna, malgutasuna, asetzea, seriotasuna, hedapena, antolaketa, ulergarritasuna...

Zahoz Taldeak honako enpresa hauek hartzen ditu bere baitan:

- **HABYCO XXI, S.A.**
Enpresa publikoen kudeaketa, bereziki etxebizitzaren eta lurzoruen arloko udal enpresen kudeaketa.
- **ZAHOSZ GESTION, S.L.**
Udalen, foru aldundien, mankomunitateen, autonomia erkidegoen eta abarren zerbitzu publikoekin lotutako proiektuen kudeaketa. Nolanahi ere, ez dira baztertzen arlo horrekin lotura duten sektoreetan lan egiten duten bezero pribatuak.
- **SALZHENIA, S.A.**
Ekimen pribatuko kooperatiben kudeaketa (akademien, osasunaren, politikaren, sindikatuen eta abarren mundua).
- **LARZHENIA, S.A.**
Zahoz Taldeko eraikuntza enpresa.
- **CAMPO Y TIERRA DEL JERTE, S.A.**
Nekazaritza arloko ekoizpena (gereziak, zainzuriak, aranak, abrikotak...)
- **JERTE FRUITS, S.L.**
Campo y Tierra enpresaren eta beste nekazari batzuen produktuen merkaturatzea eta esportatzea.
- **ZAHOSZ RESTAURACION, S.A. y ZAHOSZ HOSTELERIA, S.L.**
Ostalaritza eta sukaldaritza arloko proiektuen kudeaketa.
- **SOCIEDAD PROMOTORA BALNEARIO VALLE DEL JERTE, S.A.**
Jabetzako hotel bainuetxea ustiatzea.

Enplegatu kopurua.

- 300 pertsona (finkoak).

Horietatik 150ek lan egiten dute tokiko zerbitzu publikoak zuzenean kudeatzen. Taldeak urtean 500 pertsona kontratatzen ditu, behin-behineko langileak barne. Ostalaritzan, sukaldaritzan eta nekazaritzan oso ohikoa da behin-behineko langileak izatea.

Fakturazioa.

Taldearen urteko fakturazioa: 17 milioi euro inguru.

Bezero nagusiak.

Zahoz Taldearen gaur egungo bezero nagusiak.

Herri administrazioak.

- . Rivas Vaciamadriderako Udala
- . Torrejón de Ardozeko Udala
- . Loecheseko Udala
- . Paracuellos del Jaramako Udala
- . Cobeñako Udala
- . Fuentidueña del Tajoko Udala
- . Mejorada del Campoko Udala
- . San Fernando de Henareseko Udala
- . 2016 Mankomunitatea
- . Eta abar

Kooperatibak.

- . Vivir en Rivas kooperatiba
- . Unercasa kooperatiba
- . Alcaláko Unibertsitate Kooperatiba
- . Monreal kooperatiba
- . Eta abar

Hainbat bezero pribatu.

Zahoz Gestión eta Habyco XXI enpresen proiektu nagusiak.

HABYCO XXI, S.A.

- Rivas Vaciamadrیدهko Etxebizitzaren Udal Enpresa kudeatzea.
- Torrejón de Ardozeko Etxebizitzaren Udal Enpresa kudeatzea.
- Aholkularitza eta alderdi teknikoen kudeaketa Loechesko Udalarentzat.



ZAHOS GESTIÓN, S.L.

- Loecheseko Udalaren hiri-udalekuak, eskolaz kanpoko ekintzak, musika eskola eta kultur ekintzak.
- Torrejón De Ardozeko Udalaren eguneko zentroa, eskola porrota ren inguruko proiektua eta eskolaz kanpoko ekintzak.
- Rivas Vaciamadrیدهko Udalaren harrera-etxeak eta gizarteratze-zentroa.
- Paracuellos del Jaramako Udalaren Erakusketa Aretorako zerbitzuak kudeatzea.
- Cobeñako Udalean bulego materiala banatzea.
- Madrileko Autonomia Erkidegoko 13 udalerrik osatzen duten 2016 Mankomunitatean etxez etxeko laguntza zerbitzua.
- Fuentidueña del Tajoko Udalarentzat bideak garbitzeko zerbitzua.
- Mejorada del Campoko Udalaren eguneko zentroa, ludoteka eta Pequeteca, eta haurreskolako langileen zerbitzua.
- San Fernando de Henareseko Udalarentzat Aisialdia Kluba.

Zer da Urbania ZH Gestión?

URBANIA ZH GESTIÓN enpresa bat da, sektore publikoko erakundeei kudeaketa, aholkularitza eta prestakuntza (baina, batik bat, kudeaketa) zerbitzua eskaintzen diena. Xedea **zerbitzu publikoen** (batez ere, tokiko zerbitzu publikoen) **efikazia eta eraginkortasuna hobetzea** da. Halaber, hiri-egoitza arloko erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaz-eragiketa guztiak kudeatzen ditugu.

Zein dira bere bazkideak?

Urbania ZH **Gestión enpresan Habyco XXI eta Zahoz Gestión** enpresek hartzen dute parte. Bi enpresa horiek merkataritza ibilbide luzea eginda daukate lehen aipatutako arloetan, Espainiako erdialdean eta hegoaldean. **Javier Burón Cuadrado** ere bazkidea da bere izenean, baita gerentea ere.

Kudeaketa publikoaren eta ekonomia sozialaren mundutik gatoz. Badakigu nola sentitzen diren alkateak, zinegotziak, zuzendari nagusiak, zerbitzu-buruak edo enpresa publikoko zuzendariak; izan ere, orain baino lehen gu ere kargu horietan egon gara. Estatua defendatzen dutenek adinako konpromisoa dugu zerbitzu publikoekin eta, gainera, ekonomia pribatu eta sozialaren kudeaketa-teknika hoberenak eskaini ditzakegu.

Norentzat egiten dugu lan?

Urbania ZH Gestión-ek, Bilbon duen egoitzatik, Espainiako iparraldeko autonomia erkidegoetan (Kantauri aldean eta Ebroko korridorea) jarduteko helburua du. Diziplina anitzeko talde administratibo eta tekniko batek osatzen du Urbania ZH Gestión enpresa, eta talde horrek **gaitasun nahikoa dauka sektore publikoan kudeatzeko modua hobetu nahi duten erakundeen beharrak erabat asetzeko**. Duela zenbait urte, erakunde publiko askok ez zuten ikusten kudeaketa modua hobetzeko beharrik. Gaur egun, ordea, sektore publikoan aplikatzen ari diren murrizketa politikoaren ondorioz, herri administrazioek ezinbestekoa dute kudeaketa modua hobetzea, euren bideragarritasuna bermatzeko.

Zer ez gara?

Ondorio praktikoei dagokienez, argi utzi nahi dugu **ez garela aholkulariak** (nahiz eta aholkularitza eskaintzen dugun) eta **ez garela pribatizatzeko bidean den sektore publikoaren aktiboen erosleak** (nahiz eta baditugun geure aktibo propioak, aktibo horiek ez ditugu sekula lortu pribatizazio prozeduren bidez). Ez dugu parte hartzen kudeaketa eredua eta praktika aldatzeko aukerarik ez dugun inolako proiektutan, eta ez dugu erosten pribatizatu daitekeen aktibo publikorik. Gure ustez, aktibo eta zerbitzu publikoen jabetza eta kontrola esku pribatuetara pasatzen direnean baino ezin dira horiek pribatizatu. Gainerako guztia ondasun/zerbitzu (publiko) baten kudeaketa (publiko-pribatua) hobetzea baino ez da.

Nola egiten dugu lan?

Gure kudeaketa zerbitzuak fakturatzen ditugu baldin eta kudeaketa aldatzen laguntzen diegun **erakunde publikoen emaitzak aldatu direla egiazta badezakegu**, alegia: kostuak murriztu egin dira, diru-sarrera gehigarriak sortu dira, zerbitzua zabaldu egin da, zerbitzuen kalitatea hobea da eta/edo erabiltzaileen asebetetze-mailak gora egin du.

Zerbitzuen eta lan-ildoen katalogoa.

Eskaintzen ditugun zerbitzu ugarien artetik honako hauek azpimarra daitezke:

LAN ILDOAK

- **% 100 publikoak diren udal enpresak sortzea**, administrazio nagusiarentzat superabita duten eta diru-sarrera gehigarriak sortzen dituzten zerbitzu publikoak eskaintzeko.
- **% 100 publikoak diren herri arteko enpresak sortzea** xede berberarekin. Horretarako, hainbat udalen ahalegina batu egiten dugu, mankomunitate batzuek duten zurruntasun burokratikorik gabe.
- Administrazio publiko nagusiak **kudeaketa-aginduak** ematea baliabide propio gisa jarduten duen enpresa publikoari.
- **Tokiko zerbitzu publikoak "paketatzea"** (udal bereko hainbat zerbitzu publiko kudeatzea, eta horretarako sinergiak eta aurrezpenak bilatzea, baliabide eta prozesu komunen bidez).
- Eskualdearen Garapenerako **Plan Zuzentzaileak diseinatzea, ezartzea, kudeatzea eta balioestea**.
- **Udalei laguntza** eskaintzea hornidura-obra-zerbitzuen kontratuak izatetik (arisku publikoa) zerbitzuen kudeaketa publikoa izatera (enpresari pribatuaren arisku eta mentura) iragateko prozesuan.

- **Zerbitzu publikoen babeserako kooperatibak sortzea**. Plantilla publikoak murriztarazten dituzten egoera finantzarioen aurrean, sektore publikoko langile ohien kooperatibak sortzen eta garazten ditugu, gaur egunera arte zerbitzuak eskaini izan diren arloetan zerbitzu publikoetako kudeaketa kontratuetan lizitatu ahal izan dezaten.
- **Tokiko erakundeen zorra murrizteko plan integralak diseinatzea, ezartzea, kudeatzea eta balioestea**. Horretarako, gastu publikoa arrazionalizatzeaz eta diru-sarrera gehigarriak bilatzeaz gain, orain gure administrazioek ia erabiltzen ez dituzten Europako finantza-iturri publikoak erabiltzen ditugu.
- **Dauden zerbitzu publikoak balioestea**, antolaketa eta/edo kudeaketa berritzeari begira.
- **Sektore publiko eta talde politikoetako langileak prestatzea**, zerbitzu publikoak hobetzeko beharrezkoak diren lanabesak eta gaitasunak jaso ditzaten.
- **Hiri zerbitzu berriak**, honako hauekin zerikusia dutenak: egoitza mota berriak, energiaren kudeaketa, mugikortasuna, ekoeraginkortasuna, hiria zaharberitzea eta leheneratzea, eta gure hiri sareek (publikoa, publiko-pribatua eta pribatua) eta horien zerbitzuek ekonomia, ingurumen eta gizarte aldetik ahalik eta eraginkorren funtzionatzeko zerikusia duen guztia.
- **Ekonomia soziala sustatzea**.
- Oro har, **kooperazio publiko-pribatua sustatzea**, betiere zerbitzu eta aktibo publikoen jabetza eta kontrola sektore publikoaren eskuetan egongo dela bermatzen bada.

Beste gizarte, merkatu eta administrazio mota baterako bestelako enpresak eta langileak sortzeko garaia da.

ZERBITZUAK

- **Hirigintza eta etxebizitza arloko zerbitzuak:** etxebizitza eta hirigintza arloko tokiko enpresa publikoak kudeatzea, eta batez ere babestutako etxebizitza berriak sustatzea, alokairurako parke publikoa kudeatzea eta hiria zaharberritzea eta leheneratzea.
- **Finantza sistemaren eta sektore publikoko higiezinaren stocka kudeatzea,** prezio onean saltzeko edo alokatzeko.
- **Gizarte zerbitzuak:** eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza zerbitzua, etxebizitza babestuenak...
- **Kultura eta hezkuntza arloko zerbitzuak:** eskolaz kanpoko ekintzak, musika eskolak, hezkuntza arloko laguntza, liburutegiak, ludotekak...
- **Ingurumen arloko zerbitzuak.**
- **Nekazaritza eta abeltzaintza arloko zerbitzuak.** Udal askok gaitasunak dituzte nekazaritza eta abeltzaintza arloko garapen ekonomikoa hobetzeko baina ez dituzte erabiltzen, eta gaitasun horiek maiz baliatu ahal dira % 100 publikoak izango diren tokiko edo herri arteko enpresak sortuz, udalentsat diru-sarrerak gehigarriak eta gune horretan enplegu iraunkorra sortzeko.
- **Turismo arloko berrikuntza.**
- **Energia kudeatzea.** Udal askok euren energia-faktura murriz dezakete kontsumitzaile izatetik energia (eguzki energia, energia fotovoltaikoa, biomasa, geotermia ...) sortzaile izatera pasatzen badira. Hurrengo urratsa herrien arteko enpresa sortzea litzateke, % 100 publikoa izango dena eta beste erakunde publiko zein pribatu batzuei energia salduko diona.
- **Ekitaldiak.**
- **Teknologia berriak.**
- **Zerbitzu lagungarriak:** garbiketa, atezaintza, kontabilitatea, kudeaketarako laguntza...
- **Hornidurak:** energia, bulegoko materiala...

Eginkizuna


Politikariak, kudeatzaile publikoak eta lider finantzarioak konbentzitzea euren ardurapekoak diren zerbitzu publikoek ez dutela zertan izan, kasurik onenean, zergetatik eratorritako gastu publikoaren helmuga, edo, kasurik okerrenean, euren iraunkortasuna zalantzan jartzen duen galera-iturri. Herri administrazioek (baita toki mailakoek ere) ekimen ekonomiko publikoa zabaldu behar dute. Ekimen hori, modu profesionalean kudeatuta eta interes orokorrari uko egin gabe, zerbitzu publikoak eurak bakarrik mantentzea bultzatuko duen diru-sarreraren iturri izan daiteke, eta administrazio nagusiarentzat (toki mailan udalak) diru-sarrera osagarriak sortu ahal izango ditu.

Zenbait produktu eta zerbitzuren mutualizazioan uste osoa dugu. Aukera horrek gainditu egiten du publikoa vs. pribatua edo estatua vs. merkatua dialektika.

Beste gizarte, merkatu eta administrazio mota baterako bestelako enpresak eta langileak sortzeko garaia da. Dagoeneko abian dira giza beharrak ulertzeko, negozioak egiteko eta zerbitzu publikoak kudeatzeko modu berriak. Horiek arreta handiagoa eskaintzen diete ertaineko eta luzerako epeei, berehalako onura espekulatiboari eta atxikipen finantzarioari baino. Baina zerbait gehiago egin behar dugu horiek agerikoak izan eta gizarte iraunkorragoak (ekonomia, gizarte eta ingurumen arloan) sustatzeko gai izan gaitezen.

Ikuspegia

Uste dugu zerbitzu publikoen, kudeaketa pribatuaren eta merkatuaren ekonomia sozialaren alderdirik onenak modu sinergikoan eta funtzionalean nahastu ahal direla.



Geure baloreak

- Grina
- Profesionaltasuna
- Efikazia
- Eraginkortasuna
- Iraunkortasuna
- Enplegutasuna
- Desatxikitzea
- Holismoa (sektore publikoko arazoak modu integralean ulertzea)
- Erakunde eta gizarte arloko berrikuntza
- Ekintzailtza
- Sare-lana
- Kooperazioa
- Abangoardia
- Jakin-mina





urbania
gestión



Jar zaitez gurekin harremanetan

Rodríguez Arias kalea, 5.-5. erdia
48008 Bilbo

Telefona: 94 495 57 08

www.urbaniazhgestion.com

e-posta: info@urbaniazhgestion.com